

ELITEKO EMAKUMEAK ETA PARTE HARTZE  
PUBLIKOA ERROMAN (K.a I-K.o I)

---

MATRONAK HAIEN IRUDIAREN ATZEAN

Tutorea: ELENA TORREGARAY PAGOLA

Egilea: LEIRE LIZARZATEGUI ELU

2015/06/23



**Historia 4.maila**  
**Ikasketa Klasikoak**

## LABURPENA

Antzinaroko emakumeen historia gero eta gehiago ikertzen bada ere, argitaratzen diren lanetako askok emakumeen euren bizimodua baino gizarteak haiekiko zuen jarrera aztertzen dute, legedia eta *exempla*-k modu literalegian ulertzearen ondorio ez baitute emakumeen haiekiko jarrera kontatzen.

Bertsio bakarrean oinarritutako historia hau dela eta iraganeko emakume haien ikuspegi oso kontraesankorra sortu da, matronak aldi berean haien semeak bizitza politikorako prestatzeko gai ziren emakume ondo hezi eta prestu gisa zein tradizioak eta *pudicitia*-k inposatuta etxean iruten geratu beharra zuten talde menderatu bezala aurkeztu baitira.

Nire ustez, ordea, kontraesan hori geure aurreiritziek sortua da, izan ere, Apianok transmititutako Hortensiaren hitzaldiari (*BC*, 4.5.32-33) erreparatzen badiogu ondoriozta dezakegu elite erromatarreko emakumeek bazutela politikan parte hartzeko aukera; eta Valerio Maximok Hortensia honi eta Afraniari buruz idatziko testuak alderatzen baditugu (8.3.2-3) ikusiko dugu gizartearentzat benetan mespretxagarria ez zela matronek politikan parte hartzea, baizik eta hori espazio publikoetan egitea beste aukerak izanda.

Hala, nire interpretazio hauek zuzenak badira, emakume erromatar haiek ez zuten benetan kontraesanik ikusiko, alderantziz, gizarteak inposatutako pribatutasuna mantentzen zuten artean, hiriko bizitzan parte hartzea eta haien interes politikoak zaintzea beraien familiak eta Errepublikak bera zerbitzatzeko zuten modua izango zen.

Beraz, aurreiritziak albo batera uzten baditugu, gai izango gara behingoz etxean giltzapetuta bizitza iruten pasatzen zuten emakumeen topikoa baztertu eta haren atzean ezkutatzen diren hezur-haragizko emakumeak aztertzeko.

## ABSTRACT

*Even though the role of roman women in Antiquity is becoming more and more frequent as a research subject, many of the published works focus in society's attitude towards those women instead of in the women themselves, because, due to their literal interpretation of law codes and exempla, they don't actually say how women would behave towards them.*

*Because of this one sided history we have the most contradictory view of the roman women, because they are represented both as well educated aristocrats preparing the next generation of citizens and as submissive silent women who under the heavy weight of tradition and pudicitia spend all their life locked up in the domus spinning alongside their slaves.*

*Yet, in my opinion, our own prejudices are the main cause of this contradiction, because attending to Hortensia's speech transmitted by Appian (BC, 4.5.32-33) we may deduce that high class roman women actually had an established way to take part in politics; and regarding to the comparison Valerius Maximus makes between Hortensia and Afrania (8.3.2-3) we might even propose that what society criticized wasn't women to take part in politics, but to take part publicly when they had other ways to achieve their goals.*

*So, if my interpretations are correct, those roman women wouldn't have felt any contradiction, quite the opposite, as long as they keep the privacy imposed to them, they would have considered taking part in the city's social life and serving their families and the Republic as part of the same task.*

*Therefore, if we set our prejudices aside, maybe we will be able to leave behind the historical cliché of women locked up at home and we will start understanding the real women who walked through History.*

## AURKIBIDEA

1-SARRERA.....	4-7
2-MATRONA IRUDIA.....	7-10
3-ERREPUBLIKATIK INPERIORA: EGOERA BEREZIA .....	10-15
4- EMAKUMEEN PARTE HARTZEA POLITIKAN.....	15-21
5-ONDORIOAK.....	21-22
6-ERANSKINAK.....	23-26
6.1-ITURRIAK.....	23
6.1.1-Literarioak.....	23
6.1.2-Epigrafikoak.....	23
6.1.3-Numismatikoak.....	23
6.2-BIBLIOGRAFIA.....	23-26

## 1-SARRERA

XX.mendeak aurrera egin arte Historiaren akademikoek jarrera hain zuzen ere *ahistorikoa* mantendu zuten emakumearekiko, haien ustez ez baitzen aldaketarik eman andreak gizartean betetako funtzioetan talde ehiztari-biltzaileetatik gizarte industrial modernoetaraino. Ikuspegi honen aburuz emakumeen eginkizunak beti esparru domestikoan mantendu izan dira, umeak heziz, zaharrak zainduz eta senarra zerbitzatzuz, eta beraz, ereditik kanpo jardun zuten emakume famatu bakan batzuen salbuespenaz, zerikusi gutxi izan du sexu honek Historiaren dinamikan<sup>1</sup>.

Perspektiba honetan oinarrituta, XIX. eta XX.mendeko historialariek Emakumeen Historia gizon famatuekin harremanetan egondako emakumeen biografietara mugatu zuten: Troiako Helena, Kleopatra edo Livia Antzinaroan, baina baita Akitaniako Leonor, Joana Arc-ekoa, Lukrezia Borgia edo Maria Antonieta beste garai batzuei dagokionez, oso pertsonaia famatuak bilakatu ziren gizarte europar eta estatu batuarrako giro burges eta intelektualetan, emakumei atxikitako bertute edo gaitzen ordezkari ikonografiko oso indartsuak bilakatu zirelarik<sup>2</sup>.

---

<sup>1</sup>Kontutan hartu behar dugu historiografia tradizional hura gehienbat ekintza militar eta politikoen bilakaeran zentratzen zela, eta haien ikuspegiaren arabera pentsaezina zen emakumeek halako ekintzetan parte hartu izana, beraz planteatu ere ez zuten egiten. Ondo islatzen du Langlois eta Seignobosek 1898an argitaratutako *Introducción a los estudios históricos* lanean aipatutako esaldi honek garai hartako zientzia historikoaren idiosinkrasia:

“La historia es la política pasada, la política es la historia presente”.

(Moradiellos, E., 2008, 56)

<sup>2</sup> Emakume hauek, haien berezitasunagatik, lortu zuten fama adierazten diguten hainbat errepresentazio aurki ditzakegu XIX. eta XX.mendeetan, bereziki Kleopatrari buruz. Gutxi batzuk aipatzearen hortxe ditugu Offenbachen *La belle Hélène* opera (1864), Alma Tademak (1883) eta Jean-Leon Geromek (1866) Kleopatra irudikatuz margotutako koadroak, Emmanuel Frémietek sortutako Joana Arc-ekoaren estatua (1874), eta, jakina, Robert Gravesen *Yo, Claudio* nobela, non Liviak paper benetan ikonikoa betetzen duen. Horrez gain, zinemak ere haren lehen garaietatik izan du emakume hauek irudikatzeko interesa: 1910an bertan Lukrezia Borgiari buruzko laburmetrai bat filmatu zen; 1912an Kleopatrari buruzko filmen zerrenda luze baten lehena burutu zen, eta 1917an Theda Bara handiak bizira ekarri zuen Egiptoko erregina FOX estudioen superproduktzio baten. Huez gain 1963ko Elizabeth Taylorren *Cleopatra* (Rex Harrison eta Richard Burtonekin) eta 1968ko Katharine Hepburnen Akitaniako Leonor *Lion in Winter* filmean (Peter O’toole eta Anthony Hopkinsekin) zinemaren historian izandako rol femenino ezagun eta miretsienetakoak dira.

Ikuspegi hau 1970eko hamarkadan hasi zen aldatzen, Bigarren Olatu Feministak emakumeek haientzako identitate propio bat eraikitzeke beharra azpimarratu zuenean (Centlivres Challet, C.E., 2013, 5). Aldarrikapen hau Historia, zientzia gisa, iraultza epistemologiko baten murgilduta zegoen garaian iritsi zen, izan ere, 60-70eko hamarkadatik aurrera pixkana erregetza eta batailen Historia atzean geratzen hasi zen, eta gero eta gehiago gizarteak haien osotasunean ikertzea bilakatu zen zientzia honen helburua (Moradiellos, E., 2008, 71). Historia ez zen jada guk ezagutzeko zain zegoen egia finko bat baizik eta eraiki beharreko errealitate subjektibo garrantzitsu bat.

Nolanahi ere, teoria praktika baino politagoa izan zen, korrante epistemologiko berriek nekazal gizarteak eta klase zapalduak arreta handiagoz aztertu bazituzten ere emakumea oro har ikerketa horietatik kanpo geratu baitzen. Hala, 1970eko hamarkadatik aurrera gizartearen historia egiten da eta emakumeen historia ere egiten da, baina gutxitan batera, oro har emakumeen kasuak eta bizimoduak auzi horretan espezializatutako ikerlariak baino aztertzen ez dituztelarik. Horrez gain, historialari asko emakumeek prozesu historikoetan izandako parte hartzea eta eragina ikertzeko beharraz kontzientziatu diren arren, ez dira gutxi ikerketa hauek mespretxatu eta oraindik ere XIX. eta XX.mendeetako perspektiba *ahistoriko* hura mantentzen duten adituak.

Antzinaroari dagokionez, emakumeei buruz eginiko lehen ikerketa modernoak Pomeroy (*Goddesses, whores, wives, and slaves*, 1975), Lefkowitz (*Heroines and Hysterics*, 1981) eta Cantarellak (*L'ambiguo malanno: condizioni e immagine della donna nell'antichità greca e romana*, 1985) burutu zituzten. Jarraian argitaratutako ikerketa lan gehienak bereziki hiru klasiko hauetan oinarritu izan dira, hori dela eta egun oraindik haien artean sortutako eztabaida mantentzen da.

Aditu batzuen ustetan<sup>3</sup> emakume erromatarrak, bereziki Errepublikako azken garaitik aurrera, erlatiboki askeak izan ziren Antzinaroko beste emakumeekin alderatuz gero<sup>4</sup>. Besteen ustetan aldiz<sup>5</sup>, Errepublika bukaeratik aurrera haien egoera zertxobait samurru bazen ere emakume erromatarrak gizarte patriarkal zurrun batek inposatutako

---

<sup>3</sup> Pomeroyren ikerketa ildoari jarraituz.

<sup>4</sup> Konparazioa gehienbat eliteko emakume erromatarren eta Aro Klasikoan Atenasen bizitako eliteko emakumeen artean egiten da.

<sup>5</sup> Cantarellaren lanetan oinarrituta.

uztarriaren mende bizi beharko ziren Antzinaroko gainontzeko emakumeak bezala (Bengoechea Jove, M.C., 1998, 252-254).

Arazoa da, nire ustez, lan hauetako askok benetan ikertzen dutena ez dela emakume erromatarra bera, baizik eta gizarteak harekiko zeukan jarrera. Modu bikainean aztertzen dute emakumeen testuinguru juridiko-soziala, baina ez dute benetan emakumeek parametro horien barruan nola jardungo zuten esaten. Lan hauek legeek emakumeei zein muga inposatzen zizkien azaltzen dute eta zenbait autorek *exempla* gisa aurkeztutako emakumeen bizitzei erreparatzen die eliteko emakumeen gehiengoak nola jardungo zuen azaltzeko; baina zilegi al da iturri horiek erabilia halako orokortasunik egitea?

Legeak ez dira sortzen existitzen ez diren arazoak arautzeko, beraz hauek askotan emakumeek ezin zuten esatean hain zuzen ere zer egiten zutena iradoki ahal digute; era berean, *exempla* hauek eredu gisa aurkeztutako jarrera apartak dira, baina eredu izateak hain zuzen ere bereziak, eta beraz ohiko portaeretatik ezberdinak, direla esan nahi du. Hau kontutan hartuta, agian pentsa behar genuke testuek transmititutako *matrona* irudi idealaren atzean oraindik ezagutu ez ditugun hezur-haragizko emakumeak egongo zirela, benetako matronak.

Honekin ez dut esan nahi erromatar eliteko emakumeak berdintasunaren bila senatuaren kontra borrokatzeko prest zeuden feminista talde antolatu bat zirenik! Ez, halakorik esatean gaur egungo gizarteari eta emakumeei buruz dudan ikuspegia gizarte guztiz ezberdin baten proiektatzen egongo bainintzake. Baina bai uste dut, beste garai askotako emakumeek bezala, emakume erromatarrek ere legearen zirrikituak eta egunerokotasunerako gizarteak erakutsi ohi duten praktikotasuna probesten jakingo zutela haien interesak defendatzeko, ziur aski gizarteak inposatutako irudi ideal hartatik gehiegi urrundu gabe. Horixe da behintzat hurrengo lerroetan defendatzen saiatuko naizena.

Proiektu gisa, ziur aski emakume haiek ezagutu eta ulertzeko komenigarriena *matrona* irudiak eta andreen egoera juridiko-sozialak erromatar historia osoan izandako bilakaera aztertzea izango zen, horrek irudia eta errealitatearen arteko dialektika askoz modu sakonagoan ulertzea baimenduko bailiguke; baina lan honen mugak direla eta kasu

honetan ni K.a. I eta K.o. I.mendeetara mugatuko naiz harreman dialektiko horren nolakotasunak ikertzeko, bereziki mende batetik besterako trantsizioan zentratuz<sup>6</sup>.

Baina dakigunez, Emakumeen Historiak daukan *handicap* nagusia iturrien urritasuna da. Emakumeak, argi eta garbi, gizonak baino askoz gutxiago aipatzen dira iturri idatzietan (eta sarri ez daude horren presente interpretazio arkeologikoak egiterakoan ere), hori dela eta haiei buruz hitz egitean behar-beharrezkoa da muga kronologikoak malgu xamar erabiltzea<sup>7</sup>.

Bestalde, eliteko emakumeetan zentratu naiz nire lanaren helburua emakumeek erabaki politikoetan parte hartzeko aukerarik ba ote zuten jakitea delako, eta botere mota hori soilik klase zuzendarian da posible, hala ere, etorkizuneko beste lan batzuetarako, interesgarria izango zen Erromako emakume txiroen presio talde gisa izan ahal zuten ahalmena ikertzea.

## 2- MATRONA IRUDIA

Cristina de la Rosa Cuboren esanetan, *Matrona* ezkontzean emakumeek eskuratzen zuten titulua zen, andre heldu eta zintzoaren sinonimo gisa, errespetagarria (Rosa Cubo, C., 2004, 267). Matronak hortaz hiritarren emazteak ziren, eta ondorioz hiritartasunaren igorleak. Hala, haien ardura nagusia hiritar berriak *ekoiztea* zen; ez soilik erditzea leinua bizirik mantentzeko, seme-alabei *mores maiorum* transmititzea ere matrona baten funtzioen parte garrantzitsua zen, etorkizuneko hiritarrak haren eskuetan baitzeuden.

Amaren ardura zen, bereziki semeak<sup>8</sup>, ondo kontseilatzea Errepublika zerbitzatu eta familiaren izena handituko zuten hiritar onak hezteko; baina horrez gain, behin semeek *cursus honorum*-a hasten zutenean beraien diru eta kontaktuak baliatu behar zituzten semeei aukera politiko interesgarrienak ziurtatzeko. Lan honen truke matronek haien lan

---

<sup>6</sup> Garai hau aukeratu dut, gero sakonago azalduko dudan moduan, K.a. I.mendea bereziki gatazkatsua eta sistema politiko-sozial berri baten hasiera garaia izateak emakumeen garrantzi politikoan izan zuen eragin handiagatik.

<sup>7</sup> Bereziki kontutan hartuta emakume haiek ez zutela beraien jarrera egun batetik bestera guztiz aldatzea erabakiko bi mila urte beranduago ezarritako urte sistema baten arabera!

<sup>8</sup> Alabei ere transmititzen zitzairen ohituraren eta balore errepublikarren garrantzia, baina hauekin helburua ez zen horren zuzena, asmoa etorkizunean hiritar onak heziko zituzten matronak prestatzea baitzen; hots, semeekin emaitza hurrengo belaunaldian bertan lortu behar zen, alabekin ordea bi belaunaldi barru.



bikainaren errekonozimendua eskuratu ahal zuten haien semeen lorpenen bidez, Kornelia Grakoen amak bezala (Cantarella, E., 1997, 193-194)<sup>9</sup>.

Baina betebeharrak honetaz gain matrona batek bere irudia ere zaindu behar zuen, bere dignitateari zegokion *pudicitia* erakuzteaz ahaztu gabe. Erromatarrentzako hiritarrak animalia basati edo esklaboetatik bereizten zituen ezaugarri nagusietako bat haien pasioak kontrolatzeko gaitasuna zen, eta *pudor* kontzeptuak betebeharrak horrekin ez betetzeagatik kritikak jasotzeko beldurra ordezkatzeko zuten.

Gizonen kasuan *impudicitia* adierazpen larriena homosexualitate pasiboa zen, norbere burua beste baten desioetara errenditzea *virtus*-ak eskatzen zuten auto-kontrollean huts egin izana adierazten baitzuen; baina matronei bertute gisa eskatzen zitzaizkien *pudicitia* askoz zorrotzagoa zen:

“En el amplio concepto de pudicitia están englobadas virtudes como honestidad, fidelidad, castidad, economía, modestia, compostura, recato, entrega al marido y a los hijos, formación intelectual sin ostentación ni ánimo de llamar la atención, abnegación, frugalidad, obediencia, dignidad, tranquilidad y ecuanimidad de ánimo, sentido del deber, piedad religiosa, agrado y gracia.”

(Libran Moreno, M., 2007, 4-5)

Sinbolikoki matronek haien jantziak erakusten zuten bertute hau, ilea zintekin apainduz (*vittae*) eta oinetaraino iristen zitzaizkien tunika berezi bat (*stola*) jantziz (*Ibidem*, 8). *Pudicitia* honen kontrako delitu nagusiak, Romuloren garai mitikoetaraino atzera eginda, adulterioa eta ardoa edatea ziren, lehenak andreak zentsua galdu zuela adierazten baitzuen, eta bigarrenak galtzeko bidean zegoela.

---

<sup>9</sup> “Cornelia es, sobre todo, una muestra proverbial de la acaparación de honores propio de las matronas romanas pertenecientes a los grupos elevados. Un día que una matrona que acogía en su casa le mostró orgullosa todas sus joyas que, según se decía, eran las más hermosas entonces existentes, Cornelia entretuvo a su amiga conversando hasta el momento en que sus hijos regresaron de sus lecciones. En este momento, dijo de forma audaz, señalando a sus hijos: Estas son mis joyas.”

(García Vivas, G.A., 2013, 103)

Istorio esanguratsu hau Valerio Maximoren testu famatutik itzuli du García Vivasek:

“*Maxima ornamenta esse matronis liberos, apud Pomponium Rufum collectorum libro ... sic inuenimus: Cornelia Gracchorum mater, cum Campania matrona apud illam hospita ornamenta sua pulcherrima illius saeculi ostenderet, traxit eam sermone, donec e schola redirent liberi, et 'haec' inquit 'ornamenta sunt mea'.*”

(V. Max., 4.4)

Behin *pudicitia* bertutea galduta ez zegoen atzera biderik, heriotza zen aukera bakarra izen ona berreskuratzeko. Hala senarrak eta aitak adulterioan harrapatutako zein ardoa edandako emakumea hiltzeko baimen legala zeukaten (Maclachlan, B., 2013, 14)<sup>10</sup>, eta era berean, Lukreziaren mitoa *exempla* bilakatu zen *pudicitia* galtzen zuten emakumeei zer egin behar zuten adieraziz.

Bere betebeharrak eta bertute hauekin betetzen bazuten matronak gizarteko kide errespetatuak ziren, eta gainera, semeak hezteko ardura izateagatik sarri neskek eurek ere hezkuntza zaindua jasotzen zuten, Errepublikaren azken garaian behintzat ez zegoelarik inola ere gaizki ikusita emakumeek lorpen intelektual eta artistiko propioak izatea (Pomeroy, S.B., 1999, 193). Ongi adierazten du Kintilianoren testu honek:

*“In parentibus vero quam plurimum esse eruditionis optaverim, nec de patribus tantum loquor. Nam Gracchorum eloquentiae multum contulisse accepimus Corneliam matrem, cuius doctissimus sermo in posteros quoque est epistolis traditus: et Laelia C. filia reddidisse in loquendo paternam elegantiam dicitur, et Hortensiae Q. filiae oratio apud Triumviros habita legitur non tantum in sexus honorem.”*

“As regards parents, I should like to see them as highly educated as possible, and I do not restrict this remark to fathers alone. We are told that the eloquence of the Gracchi owed much to their mother Cornelia, whose letters even today testify to the cultivation of her style. Laelia, the daughter of Gaius Laelius, is said to have reproduced the elegance of her father's language in her own speech, while the oration delivered before the triumvirs by Hortensia, the daughter of Quintus Hortensius, is still read and not merely as a compliment to her sex.”

(Quint., *Inst.*, 1.1.6)

Cantarellak proposatzen du nolabaiteko sexuen hitzarmen sozial bat emango zela, *do ut des*, elkarrekikotasunean oinarritutako hitzarmen bat. Honen arabera, emakumeek bigarren planora erbesteratzen zituen sistema patriarkal hura mantentzen lagunduko zuten ohituren gordailu eta transmisore gisa trukean ohorea eta prestigio soziala lortuz haienezako zein haien familientzako (Cantarella, E., 1997, 206).

Baina Cantarellaren ustez, erreprozitatezko tratu honek emakumeei eskaintzen zizkien ohore guztiak hutsalak ziren, tratuaren parte garrantzitsuenetako bat emakumeek botere faktiko guztiei uko egitea baitzen, espazio publikoetan hitz egiteko aukera galduz eta

---

<sup>10</sup> Errepublika bukaeran adulterioan harrapatutako zigorrak mantentzen ziren, Augustoren legedi berriak are zorrotzago epaitu zituelarik, baina ardoaren inguruko printzipioak asko erlaxatu ziren garai hauetarako.

betiko gizonen tutoretzapean geratuz, gehienetan senarra edo sendiko beste gizonezko bat (Cantarella, E., 1996, 209).

Cantarellak proposatzen duen hitzarmen hau benetan interesgarria da nire ustez emakumeak eurak patriarkatuaren antolakuntzan nola integratzen ziren ulertzeko, baina inolako botererik gabe eta haien tutoreen erabakiekiko guztiz mendeko aurkeztean matrona haien bizimoduaren perspektiba beltzegia aurkezten duela esango nuke.

Egia da gizarte patriarkal guztietan bezala eliteko emakume erromatarrek ere muga asko zituztela, eta juridikoki eskubide asko ukatzen zitzaizkien heinean zapalduta bizi zirela ere esan dezakegu<sup>11</sup>, baina zapalkuntza hori ez zen berdina izango garai guztietan eta klase guztientzako.<sup>12</sup>

Hala, nik uste *matrona* irudia modu zurrunegian ulertu dugula, nolabait ahaztuz irudi garrantzaren atzean egunero sistema hartan bizi beharko ziren benetako emakumeak zeudela, eta hauek, bai haien maila sozialagatik eta baita jarraian azalduko dudan egoera koiunturalagatik ere, aukera dezente izango zituzten bai haien auziak kudeatzeko eta baita haien interes politikoak zaintzeko ere.

### 3-ERREPUBLIKATIK INPERIORA: EGOERA BEREZIA

K.a I.en mendea barne gatazkaz beteta egon zen erromatarrentzat. K.a. 88ko Mario eta Silaren arteko gerretatik Oktaviok Aktiumeko batailan, K.a. 31an, Marko Antonio eta Kleopatra garaitu zituen arte, hainbat izan ziren gizonak Inperioaren bihotzetik aldentzera bultzatu zituzten gudak: Ponpeioren kanpainak piraten eta Mitridatesen kontra K.a. 74-63 artean, K.a. 53ko sarraskia Carrae-en partoen kontra (Krasok

---

<sup>11</sup> Beste kontu bat da ea beraiek zapalkuntza horren kontziente ote ziren kasu guztietan...

<sup>12</sup> Gizarte patriarkalen zapalkuntzaren nolakotasunak oso ezberdinak izan ahal dira garaia edo lekuaren arabera. Bi adibide deigarri jartzearen: mugimendu sufragistak urte askotan borrokatu baziren ere emakumeen boto eskubidearen inguruko balantza azkenean hilabete gutxi batzuetan aldatu zen, Lehen Mundu Gerraren eraginez; eta geografiaren garrantziaz azpimarratzeko, merezi du pentsatzea zein ezberdina izan ahal zen 1968ko udaran Parisen ikasten zuen edo Espainiako diktadurapean bizi zen 20 urteko neska baten askatasun sexuala... Are gehiago, garai eta leku bakoitzean klase eta lanbide ezberdintasunak ere nabarmentzen dira, goi klaseek eta goi mailako prostitutek oro har aukera politiko eta askatasun ekonomiko handiagoa izaten dituztelarik, eta familiak berak ere pisu erabakigarria dauka, bereziki nesken hezkuntza eta ezkon adinari dagokionean. Horrez gain, ez dugu ahaztu behar indibiduoak berak zapalkuntza horrekiko hartutako jarrera ere erabakigarria izaten dela.

zuzenduta), Zesarren konkistak Galian (K.a. 58-51), eta gerra zibilen berrasiera K.a. 49-47an Zesar eta Ponpeiorekin. Ponpeio garaitua eta eraila izan zen, baina liskarra ia berehala piztu zen berriro K.a. 44an senatari batzuek Zesar hiltzean, lehenik haren aldekoak eraileen kontra, eta azkenean Oktavio eta Marko Antonio artean (Kinder, H., Hilgemann, W., 2006, 93-95).

Gerra hauen ondorioz gizon ugari haien etxeak utzi behar izan zituzten denboraldi luzeetan, eta asko ez ziren bueltatu. Aldi berean, gatazka hauek haien errepresentazioa izaten zuten Erroman bertan *optimates* eta *populares* arteko borrokekin eta tarteka *imperator*-ek ezarritako proskripzioekin, beraz, Erroman bertan geratzen ziren gizonak ere sarri ez zeuden salbu, eta kanpora joandakoek haien patrimonioa zainduko zuen norbait utzi beharra zuten bueltatzean zerbait izan nahi bazuten.

Hala, Errepublikaren azken urte gatazkatsu hauetan emakume asko bakarrik aurkitu ziren. Honek jakina, espazio pertsonalean tragedia bat eta hainbat arazo suposatuta ahal zituen familiaren testuinguru itxian, baina emakume taldearen plano orokorragoan, emakumeei haien kabuz jarduteko aukera gehiago eskaini zizkien, gizonak kanpoan zeudela haiek baitziren sendiaren interes ekonomikoak eta harreman politikoak zaintzeko arduradunak; eta gizonak hiltzen baziren (beste gizon gehiagoren faltan) emakumeek inoiz baino aukera gehiago zituzten herentzia potoloak eskuratzeko.

“[...] distintos motivos como una dote recuperada, una herencia paterna o la herencia a la muerte del marido hacen que, en estos momentos de la Republica tardía las fortunas de las mujeres romanas de los grupos sociales elevados, fueran tan importantes como las de los hombres y en algunos casos incluso más.”

(García Vivas, G.A., 2013, 50)

Horrez gain, emakumearen betiereko *adin txikiko* egoera arintzen hasi zen, beti tutore bat izateko beharra desagiten zen heinean. Errepublikaren azken urteetan gero eta ohikoagoa bilakatu zen *optio tutoris* formula legala baliatuz aita eta senarrek testamendu bidez emakumeei haien tutorea hautatzeko baimena ematea (*Ibidem*, 52). Honi esker emakumeek senditik kanpoko pertsona bat aukeratu ahal zuten, oinordekoen artean ez egonda honek ez baitzuen patrimonioa horren estuki kontrolatzeko interesik izango. Are gehiago, nahiko ohikoa bilakatu zen tutore gisa norbere liberto bat aukeratzea, modu honetan tutorea bera emakumearen kontrolpeko bat baitzen (Cortés Tovar, R., 2004, 201).

Beranduago, Augustoren legedi berriak aukera eman zien emakumeei tutoretzatik guztiz libratzeko. *Ius liberorum*-aren bidez hiru ume erditzen zituzten emakume askeak zein lau erditzen zituzten emakume askatuak gizonezkoen tutoretzatik libre geratzen ziren (Pomeroy, S.B., 1999, 173). Bestalde, oraindik tutoretzapean mantentzen zirenentzat, legislazio berriak emakumeei haien tutoreen kontra salaketa bat jarri eta tutore berri bat aukeratzeko baimena ematen zien. Azkenean Klaudiok aske jaiotako emakumeen gaineko derrigorrezko tutoretza deuseztatu zuen (Cantarella, E., 1996, 240).

Aldaketa hauek emakumeek gizonekiko zuten dependentzia ekonomiko zein legala asko murriztu zuten, eta alargun zein erbesteratuen emazte asko haien familien arduradun bilakatu ziren, eta estatus berri honek, beharra zein nahiagatik, presentzia publiko nabarmenagoa izatera bultzatu zituen. Horrez gain, Printzipatuaren hasierarekin, *princeps*-aren sendiko emakumeentzat portaera eredu berri bat sortu zen, tradizioak onartua baino askoz publikoagoa.

Kontuan hartu behar dugu Augustok antolatutako sistema politiko berria *princeps*-aren figuran oinarritzen bazen ere honi estuki lotuta zegoela boterea oinordetzeko bidea. *Pax Augusta*, Augustoren propaganda elementu nagusia, zen sistema berriaren giltzarria, aldaketa justifikatzeko baliaututako aitzakia: Augustok bere burua *imperator*-en arteko gatazka odoltsuekin bukatu zuen Errepublikaren salbatzaile gisa aurkezten zuen, boterea bere eskuetan bilduz hura lortzeko lehiekin bukatu baitzuen; hortaz, argi zegoen Augustok sortutako sistema berria mantentzeko *princeps*-ak bakea ziurtatzen jarraitu behar zuela, eta horretarako modu bakarra *princeps*-ak boterearen monopolioa mantentzea zen.

Mezu honek sistema legitimatzeko zuen garrantzia argi geratzen da Neronen garaiko txanponetan ere, *princeps*-a Janoren Tenpluako ate itxiekin errepresentatuz jarraitzen baita:



(*RIC* 270 (C); Cohen; *BMC* 164) eta (*RIC* 309 (C); Cohen; *BMC* 232).

Printzipio propagandistiko horren garrantzia ulertuta, derrigorrezkoa zen *princeps*-ak bere erreinaldian bakea ziurtatzeaz gain bere ondorengoarekiko botere aldaketa ere modu baketsuan egongo zela ziurtatzea, eta horretarako, botere goseak eraginiko gatazkak berriro ez hasteko, oinordekoak *princeps*-aren familian bertan hautatu behar ziren, *domus Caesarum*-ean (Cid Lopez, R., 1998, 140).

Hala, botere sistema dinastikoa bilakatu zen momentutik emakumeek garrantzi berezia eskuratu zuten, haiek izango baitziren, bai ala bai, Errepublika defendatuko zuen hurrengo hiritar garrantzitsuena heziko zutenak; hots, haien senarrak hiritarren artean lehenak baziren, etxe inperialeko emakumeak Errepublikako matrona garrantzitsuenak ziren.<sup>13</sup>

Baina publikoki proiektatutako *primus inter pares* irudi horretatik haratago, boterea familia bakarrera mugatu zen heinean emakumeek eurek ere inoiz baino botere politiko gehiago lortu zuten, alde batetik gizonen boterea azpimarratzeko elementu legitimatzaile indartsua zelako haien familiako emakumeek ere dignitate publiko berezi bat izatea, eta bestetik, familiaren ondasunak kontrolatzeko aukera lortzen zutenean Erromatar Inperioa bera zeukatelako eskuetan.

Livia, Augustoren emaztea izanik, eliteko emakumeen eredu berri honen adibide bikaina izan zen. Alde batetik, matrona ideala gisa aurkeztu zen herriaren aurrean, *mores maiorum*-en gordailu nagusia, matronen ohiko etxeko ardurak erromatar guztiekiko aplikatuko zituen *mater patriae* bat (García Vivas, G.A., 2013, 213); eta irudikapen hau indartzeko, Augustok soilik Liviak eta haren etxeko beste emakumeek irundako oihalak jantzen zituelako mitoa zabaldu zen, *princeps*-aren emakumeek Errepublikaren jatorrizko ohiturak betetzen zituztela azpimarratzeko herritarrei (Cid Lopez, R., 2014, 189).

Baina aldi berean, Liviak ordura arte emakume erromatarrek ezagutu gabeko dignitate publikoak eskuratu zituen. Hasteko, K.a. 35ean Oktaviok Livia eta Oktavia tribunoen *sacrosanctitas* bereziaz jantzi zituen, haien ohoretan estatuak eraikiarazi eta emakumeei

---

<sup>13</sup> Berezitasun politiko honi lotuta ulertu behar dugu Augustok bere testamentuan Tiberioz gain Livia bera ere adoptatu eta hau *Iulia Augusta* izendatu izana, hala Tiberio bi juliarren ondorengo bilakatzen baitzuen, haren botere legitimazioa indartuz (Cid Lopez, R., 1998, 146).

inposatutako tutoretzatik askatu zituen, haien jabetzak administratzeko eskumena aitortuz. Hala, emakume hauek ordura arte Erromako emakumeen artean Vestalek baino izan ez zuten presentzia eta garrantzi publikoa eskuratu zuten (Maclachlan, B., 2013, 131; Bauman, R.A., 1992, 94).

Beranduago, Augusto hiltzean Liviak haren kultuaren ardura hartu zuen, *flaminica divi Augusti* bilakatu, eta kargu honekin batera *lictor* bat izateko pribilegioa ere aitortu zitzaion, beranduago, K.o. 24an, baita antzerkian Vestalekin esertzekoa ere (Cid Lopez, R., 1998, 147). Azkenean ohore publiko nagusia hil ostean lortu zuen, K.o. 41ean Klaudio enperadoreak *diva Iulia Augusta* izendatu zuenean; haren estatua Augustoren tenpluan kokatu zen, eta gurtza Vestalen esku utzi zen (*Ibidem*, 151-152).

Familia inperialeko hurrengo emakumeek ez zuten tribunoen *sacrosanctitas*-a izan, baina hala ere haien estatusa azpimarratzen jarraitu zen, eta horretarako *domus Caesarum*-eko emakumeak *princeps*-ari eginiko zinean integratu ziren, haien duintasunaren aurkako irainetatik babesteko (Bauman, R.A., 1992, 98), eta pixkanaka gero eta ohikoagoa bilakatu zen, *princeps*-ekin bezala, enperadore familiako emakumeak jainkotzea, bereziki Antoninoen garaitik aurrera (Cid Lopez, R., 1998, 153).

Nik uste, Suetonioren hitz hauek direla, oinordekotza dinastikoari lotuta, *princeps*-en familiako emakumeek eskuratu zuten garrantziaren adibide onena:

*“Tulit etiam perindigne actum in senatu, ut titulis suis quasi Augusti, ita et ‘Liviae filius’ adiceretur.”*

“He was much offended at the senate, when they proposed to add to his other titles that of the Son of Livia, as well as Augustus.”

(Suet., *Tib.*, 50)

Sistema politiko berriak, Errepublika berarekin egin zuen bezala, ofizialki *matrona* irudi tradizionala aldarrikatu eta indartu zuen, nahiz eta praktikan irudi hark ordezkatzeko errealitatea atzean utzi zen eliteko emakumeen eredu guztiz berri bat sortzeko. Hala, Cristina de la Rosa Cubok dioenez, beti *matrona* eredugarriaren irudia proiektatzen saiatu baziren ere *domus Caesarum*-eko emakume gehienek sistema politiko berriak politikan modu zuzenagoan parte hartzeko ematen zien aukera profitatu zuten (Rosa Cubo, C., 2004, 278).

Testuinguru aldakor hauxe izan zen, nik uste, K.a. I. eta K.o. I.mendeetan zehar emakumeen *exempla*-k zein eredutik aldentzen zirenen aurkako kritikak ugaritzea eragin zuen arrazoi nagusia (Casamayor Mancisidor, S., 2015, 4; Rosa Cubo, C., 2004, 281).

#### 4- EMAKUMEEN PARTE HARTZEA POLITIKAN

Orain arteko gogoeta honekin badirudi *matrona* irudiak berak kontraesan bat sortzen zuela eliteko emakumeek izan beharreko jarreran, eta Errepublika bukaerako testuinguru nahasiak bistaratzea eragin zuela. Baina ni ez nago horren ziur emakume erromatarrek benetan hala sentituko zutenik, horren orde, esango nuke kontraesan hori sortu dugunak geroko historialariak izan garela *matrona* irudiaren kontzeptu itxiegia proposatzean.

Izan ere, irudi tradizionalak eskaintzen digun perspektibaren arabera, *pudicitia*-k isilik eta gordeta mantentzea eskatzen zien matronei, eta gainera Cantarellak esandakoaren arabera sexuen hitzarmenaren parte zen emakumeek edozein botere mota erreali uko egitea. Alde horretatik, egia da emakumeek ezin zutela *civitas*-eko bizitza publikoan parte hartu, ezin baitzuten publikoki hitz egin, ez botoa eman, ezta magistraturetarako hautatuak izan ere (Gamboa Uribarren, B., 2008, 27). Baina, kontutan hartuta haien ardura nagusia hiritarrak hezi eta hauei karrera politiko arrakastatsu bat ziurtatzea zela, behar-beharrezko zuten baita klientela sare zabal bat mantendu eta ahal zen heinean etengabe aliantza berriak bilatuz sendotzea; eta horretarako bai ala bai etxeko esparrutik irten eta bisitak jaso eta egin behar zituzten, ospakizunetara joan, *civitas*-eko bizitza erlijiosoan parte hartu, eta abar (Cortés Tovar, R., 2004, 198).

Horrez gain, familiaren estatusa mantentzeko, beharrezkoa zen gizonak hiritik kanpo zeuden artean emakume hauek familiako interes ekonomikoak zein politikoak zaintzea (Casamayor Mancisidor, S., 2015, 11). Ez dugu ahaztu behar Erroman politika ez zela partiduen sisteman oinarritzen, baizik eta klientela sare zabaletan eta familia handien arteko aliantzetan; berebizikoa zen hortaz gizona kanpoan zegoen artean emakumea aliantza eta klientela horiek zaintzeaz arduratzea eta senarrari informeak pasatzea, harreman horiek hoztuz gero familiaren garrantzi politikoa kolokan jarri ahal baitzen (Cortés Tovar, R., 2004, 198-199).



Hala gertatu zen adibidez Kornelia, Grakoen amarekin. Senarra hiltzean honek semeen hezkuntzaren arduraz gain familiaren interes politiko eta ekonomikoak defendatzeko betebeharra ere bere gain hartu zuen, hau estuki lotuta baitzegoen semeei etorkizun bat eraikitzeke aukerarekin. Arrazoi hau zela eta Korneliak hainbat bisita jasotzen zituen etxean, bere semeen garrantzi politikoaz gain bere jakinduriak ere fama handia eman ziolarik, baina portaera honek ez zuen haren izen ona suntsitu, kontrakoa, *matrona* idealaren eredu famatuena bilakatu zen (Casamayor Mancisidor, S., 2015, 14).

Senarra etxetik kanpo egotean emakumeek hartutako jarreraren beste adibide ederrenetako bat *Laudatio Turiae* inskripzio epigrafikoan aurkitzen dugu. K.a I.mendean senar batek haren emazteri idatzitako ereserki hartan hala goraiatzeko du senarrak bera kanpoan zegoela emazteak eginikoa:

*“[...] M(arcus) L(epi)dus conlega praesens interp[ellaretur et ad eius] pedes prostrata humi n[on] modo non adlevata sed tra[ducta et indignum in] modum rapsata livori[bus c]orporis repleta firmissimo [animo eum admone] res edicti Caesaris cum g[r]atulatione restitutionis me[ae atque vocibus eti] am contumeliosis et cr[ud]elibus exceptis volneribus pa[lam conquereris] ut auctor meorum peric[ul]orum notesceret [...]”<sup>14</sup>.*”

*“[...] Marcus Lepidus [...] who was present, was comforted with your request concerning my recall, and you lay prostrate at his feet, and you were not only not raised up but were dragged away and carried off brutally like a slave. But although your body was full of bruises, your spirit was unbroken and you kept reminding him of Caesar’s edict with its expression of pleasure at my reinstatement, and although you had to listen to insulting words and suffer cruel wounds, you pronounce the words of the edict in a loud voice, so what it should be known who was the cause of my deadly perils.”*

(CIL VI, 1527 Itzulpena: Lefkowitz, M.R., Fant, M.B., 1992, 137)

Honek adierazten digu eliteko emakume erromatarrek bazutela auzi politikoetan parte hartzeko ahalmena. Egia da sendiko gizonak kanpoan dauden garaian gertatzen den fenomeno izanik gertakari puntual gisa uler dezakegula, garai baketsuagoetan emakumeek haien *pudicitia* gehiago zainduko zutela pentsatuz. Baina nola egon prestatuta garai latz horietarako aurretik bizitza osoa soilik iruten pasatzen bazuten?

Nik uste, normaltasunaren barruan bertan ere eliteko emakumeek auzi politikoan esku hartzeko ahalmena izango zutela, baina egoera arruntetan botere hori espazio pribatuan

<sup>14</sup> [http://www.hs-augsburg.de/~harsch/Chronologia/Lsante01/LaudatioTuriae/lau\\_turi.html](http://www.hs-augsburg.de/~harsch/Chronologia/Lsante01/LaudatioTuriae/lau_turi.html)

mantenduko zen, gizonen faltaren aurrean aldiz espazio publikoetan ere hitz egitera behartuta ikusiko ziren haien ordezkariak ez izatean. Nire iritzi hau Apianok jasotako Hortensiaren hitzaldian oinarritzen dut.

Hortensia Kinto Hortentsio Hortalo K.a I.mende hasierako hizlari famatuaren alaba zen, eta K.a 42an (Höbenreich, E., 2005, 178) Triunbiroek Erromako 1400 emakume aberatsenei zerga bat inposatzean hauen kexuak zuzendu zituen. Testuak berak dioenez emakumeak lehenik eta behin triunbiroen ahaideekin hitz egitera joan ziren, baina Fulviak, Antonioren emazteak, modu txarrekin etxetik bota zituzenean haien eskakizunei kasurik egin gabe matrona hauek Forura joan ziren, haien kexuak zuzenean triunbiroen aurrean aurkezteko. Han Hortensiak, beste emakumeek hautatuta, haien kexua aurkeztu zuen hitzaldi publiko baten bidez<sup>15</sup>:

“καὶ τοῦτο ἐς τὸν δῆμον εἰπόντες προὔγραφον χιλίας καὶ τετρακοσίας γυναῖκας, αἱ μάλιστα πλούτῳ διέφερον: καὶ αὐτὰς ἔδει, τὰ ὄντα τιμωμένας, ἐσφέρειν ἐς τὰς τοῦ πολέμου χρείας, ὅσον ἐκάστην οἱ τρεῖς δοκιμάσειαν. ἐπέκειτό τε ταῖς ἀποκρυσμαμέναις τι τῶν ὄντων, ἢ τιμησαμέναις κακῶς ἐπιτίμια καὶ τοῖς ταῦτα μηνύουσιν ἐλευθέρους τε καὶ δούλους μῆνυτρα. αἱ δὲ γυναῖκες ἔκριναν τῶν προσηκουσῶν τοῖς ἄρχουσι γυναικῶν δεηθῆναι. τῆς μὲν δὴ Καίσαρος ἀδελφῆς οὐκ ἀπετύγχανον, οὐδὲ τῆς μητρὸς Ἀντωνίου: Φουλβίας δέ, τῆς γυναικὸς Ἀντωνίου, τῶν θυρῶν ἀπωθούμεναι χαλεπῶς τὴν ὕβριν ἤνεγκαν, καὶ ἐς τὴν ἀγορὰν ἐπὶ τὸ βῆμα τῶν ἀρχόντων ὠσάμεναι, δισταμένων τοῦ τε δήμου καὶ τῶν δορυφόρων, ἔλεγον, Ὀρτησίας ἐς τοῦτο προκεχειρισμένης: ὃ μὲν ἤρμοζε δεομέναις ὑμῶν γυναιξὶ τοιαῖσδε, ἐπὶ τὰς γυναῖκας ὑμῶν κατεφύγομεν: ὃ δὲ οὐχ ἤρμοζεν, ὑπὸ Φουλβίας παθοῦσαι, ἐς τὴν ἀγορὰν συνεώσμεθα ὑπ’ αὐτῆς. ὑμεῖς δ’ ἡμᾶς ἀφείλεσθε μὲν ἤδη γονέας τε καὶ παῖδας καὶ ἄνδρας καὶ ἀδελφοὺς ἐπικαλοῦντες, ὅτι πρὸς αὐτῶν ἠδίκησθε: εἰ δὲ καὶ τὰ χρήματα προσαφέλοισθε, περιστήσετε ἐς ἀπρέπειαν ἀναξίαν γένους καὶ τρόπων καὶ φύσεως γυναικειάς. εἰ μὲν δὴ τι καὶ πρὸς ἡμῶν, οἷον ὑπὸ τῶν ἀνδρῶν, ἠδικησθαί φατε, προγράψατε καὶ ἡμᾶς ὡς ἐκείνους. εἰ δὲ οὐδένα ὑμῶν αἱ γυναῖκες οὔτε πολέμιον ἐνηφισάμεθα οὔτε καθεύλομεν οἰκίαν ἢ στρατὸν διεφθείραμεν ἢ ἐπηγάγομεν ἕτερον ἢ ἀρχῆς ἢ τιμῆς τυχεῖν ἐκωλύσαμεν, τί κοινωνοῦμεν τῶν κολάσεων αἱ τῶν ἀδικημάτων οὐ μετασχοῦσαι; τί δὲ ἐσφέρωμεν αἱ μήτε ἀρχῆς μήτε τιμῆς μήτε στρατηγίας μήτε τῆς πολιτείας ὅλως, τῆς ὑμῖν ἐς τοσοῦτον ἤδη κακοῦ περιμαχῆτου, μετέχουσαι; ὅτι φατὲ πόλεμον εἶναι; καὶ πότε οὐ γεγόνασι πόλεμοι; καὶ πότε γυναῖκες συνεισήνεγκαν; ἃς ἢ μὲν φύσις ἀπολύει παρὰ ἅπασιν ἀνθρώποις, αἱ δὲ μητέρες ἡμῶν ὑπὲρ τὴν φύσιν ἐσήνεγκάν ποτε ἅπαξ, ὅτε ἐκινδυνεύετε περὶ τῆ ἀρχῆς πάση καὶ περὶ αὐτῆς τῆ πόλει, Καρχηδονίων ἐνοχλοῦντων. καὶ τότε δὲ ἐσήνεγκαν ἐκοῦσαι, καὶ οὐκ ἀπὸ γῆς ἢ χωρίων ἢ προικὸς ἢ οἰκιῶν, ὧν χωρὶς ἀβιώτων ἐστὶν ἐλευθέραις,

<sup>15</sup> Apianok hitzaldia originala bezala aurkeztzen duen arren argi dago hau laburpen bat baino ez dela, baina badirudi originalean oinarritu zela prestatzeko (López López, A., 1992, 323).

ἀλλὰ ἀπὸ μόνων τῶν οἴκοι κόσμων, οὐδὲ τούτων τιμωμένων οὐδὲ ὑπὸ μηνυταῖς ἢ κατηγοροῖς οὐδὲ πρὸς ἀνάγκην ἢ βίαν, ἀλλ' ὅσον ἐβούλοντο αὐταί. τίς οὖν καὶ νῦν ἐστὶν ὑμῖν περὶ τῆς ἀρχῆς ἢ περὶ τῆς πατρίδος φόβος; ἴτω τοῖνον ἢ Κελτῶν πόλεμος ἢ Παρθυαίων, καὶ οὐ χεῖρους ἐς σωτηρίαν ἐσόμεθα τῶν μητέρων. ἐς δὲ ἐμφυλίου πολέμου μήτε ἐσενέγκαιμὲν ποτε μήτε συμπράξαιμὲν ὑμῖν κατ' ἀλλήλων. οὐδὲ γὰρ ἐπὶ Καίσαρος ἢ Πομπηίου συνεφέρομεν, οὐδὲ Μάριος ἡμᾶς οὐδὲ Κίννας ἠνάγκασεν οὐδὲ Σύλλας, ὁ τυραννήσας τῆς πατρίδος: ὑμεῖς δὲ φατε καὶ καθίστασθαι τὴν πολιτείαν.”

*“The triumvirs addressed the people on this subject and published an edict requiring 1400 of the richest women to make a valuation of their property, and to furnish for the service of the war such portion as the triumvirs should require from each. It was provided further that if any should conceal their property or make a false valuation they should be fined, and that rewards should be given to informers, whether free persons or slaves. The women resolved to beseech the female relatives of the triumvirs. With the sister of Octavius and the mother of Antony they did not fail, but they were repulsed from the doors of Fulvia, the wife of Antony, whose rudeness they could scarce endure. They then forced their way to the tribunal of the triumvirs in the forum, the people and the guards dividing to let them pass. There, through the mouth of Hortensia, they spoke as follows, according to previous arrangement: ‘As is befitting women of our rank addressing a petition to you, we had recourse to your female relatives. Having suffered unseemly treatment on the part of Fulvia, we have been compelled by her to visit the forum. You have deprived us of our fathers, our sons, our husbands, and our brothers, whom you accused of having wronged you. If you take away our property also, you reduce us to a condition unbecoming our birth, our manners, our sex. If we have done you wrong, as you say our husbands have, proscribe us as you do them. If we women have not voted you public enemies, have not torn down your houses, destroyed your army, or led another one against you; if we have not hindered you in obtaining offices and honours, why do you visit upon us the same punishment as upon the guilty, whose offences we have not shared? Why should we pay taxes when we have no part in the honours, the commands, the state-craft, for which you contend against each other with such harmful results? ‘Because this is a time of war,’ do you say? When have there not been wars, and when have taxes ever been imposed on women, who are exempted by their sex among all mankind? Our mothers once for all raised superior to their sex and made contributions when you were in danger of losing the whole empire and the city itself through the conflict with the Carthaginians. But then they contributed voluntarily, not from their landed property, their fields, their dowries, or their houses, without which life is not possible to free women, but only from their own jewellery, and not according to fixed valuation, not under fear of informers or accusers, not by force and violence, but what they themselves were willing to give. Who now causes you alarm for the empire or the country? Let war with the Gauls or the Parthians come, and we shall not be inferior to our mothers in zeal for the common safety; but for civil wars may we never contribute, nor ever assist you against each other. We did not contribute to Caesar or to Pompey. Neither Marius nor Cinna imposed taxes upon us. Nor did*

*Sulla, who held despotic power in the state, do so, whereas you say that you are reestablishing the commonwealth'.*"

(App., BC, 4.5.32-33)<sup>16</sup>

Testu hau gehienetan Hortensiak zerga ez ordaintzeko erabiltzen duen argumentua aztertzeko baliatzen da, besteak beste Errepublikaren azken urteetan emakumeek zuten garrantzi ekonomikoa azpimarratzeko; baita eliteko emakume erromatarrek hezkuntza zaindua zutela azpimarratzeko ere, emakume bat baita hizlaria bera. Baina aztertzen ari naizen gaiari dagokionez, uste dut benetan interesgarria dela azpimarratutako esaldiek adierazten dutena, izan ere, nire interpretazioaren arabera hitz gutxi horietan Hortensiak dio kexua ez dutela Foruan adierazi haien gogoz, baizik eta Fulviaren jarreraren ondorioz ezin izan dutelako *ohiko* moduan egin.

Nire ustetan bere azaltzeko moduak adierazten du eliteko emakume erromatarrek bazutela normaltasunaren barruan politikan parte hartzeko modu bat: arazoak zituztenean edo zerbait lortu nahi zutenean eliteko beste matronekin biltzen ziren, gero hauek haien seme eta senarrak konbentzitzeko. Hau horrela izanda, zilegi litzake onartzea matronek bai parte hartzen zutela politikan, baina ez esparru publikoan; esparru horretara soilik *ohiko* moduak huts egitean edo familiako gizonak kanpoan zeudela joko zuten, haien interesak defendatzeko beste erremediorik ez izatean.

*Matrona* irudiak sortutako kontraesanera bueltatuz, nik uste irudia bera agian modu malguagoan ulertu behar genukeela, Hortensiak adierazten duen *ohiko* parte hartze hori ahaztu gabe. Agian *pudicitia*-ren kontra zihoana ez zen politikan parte hartzea, baizik eta espazio publikoetan hitz egitea! Guretzako bereizketa hau oso arraroa suertatu ahal da, publikotasuna eta politikaren arteko harremana guztiz errotuta baitauekagu, baina gizarte erromatarra ezberdina zen, eta politikak sarri muga oso lausoak zituen erlijioarekin edo gizarte harremanekin<sup>17</sup>.

---

<sup>16</sup> Emakume hauen lotsagabekeriak haserretuta triunbiroek emakumeak Forutik botatzeko agindua eman zuten, baina han zegoen jendeak matrona hauen alde egin zuen eta ezin izan zituzten bota. Hurrengo egunean Hortensia eta beste matronek garaipen partzial bat lortu zuten: triunbiroek zerga ordaindu behar zuten emakumeak 1400etik 400era murriztu zituzten; eta galerak konpentsatzeko 100.000 drakma baino gehiago zuten gizon guztiak, hiritar, liberto zein atzerritarrak, zerga berezi bat ordaintzera behartu zituzten (Höbenreich, E., 2005, 179).

<sup>17</sup> Etengabe aipatu dudana klientela sistema edo kultu inperiala horren adibide dira.

Perspektiba hau kontutan hartuta, agian pentsa dezakegu Errepublikaren bukaeran eta Printzipatuaren hasieran aurkitzen ditugun emakumeekiko kritiketako askok benetan gaizki ikusten zutena ez zela emakumeek autonomia politiko eta ekonomiko handiagoa edo hezkuntza maila zainduagoa izatea, baizik eta ahalmen horiek hiriko espazio publikoetan adierazteko lotsagabekeria.

Nire teoria hau demostratzeko uste dut merezi duela Valerio Maximok Errepublika bukaerako bi emakumeri buruz nola idatzi zuen erreparatzea. Alde batetik Hortensia daukagu, eta bestetik Afrania, Silaren garaian bizi izan zen Lizinio Bucco senatariaren emaztea.

Printzipioz, etxean iruten bizi behar den *matrona* irudia defendatzen balego Valerio Maximok bi emakumeekiko erakutsi beharko luke jarrera negatibo oso gogorra, bi emakumeek hitz egiten baitute espazio publikoan, aldiz, Afraniari buruz oso gaizki hitz egiten badu ere, Hortensiarekiko bere jarrera ez da bereziki gogorra, badirudi are miresten duela.

*“C. Afrania uero Licinii Bucconis senatoris uxor prompta ad lites contrahendas pro se semper apud praetorem uerba fecit, non quod aduocatis deficiebatur, sed quod inprudencia abundabat. itaque inusitatis foro latratibus adsidue tribunalia exercendo muliebris calumniae notissimum exemplum euasit, adeo ut pro crimine inprobis feminarum moribus C. Afraniae nomen obiciatur. prorogauit autem spiritum suum ad C. Caesarem iterum P. Seruilium consules: tale enim monstrum magis quo tempore extinctum quam quo sit ortum memoriae tradendum est.*

*Hortensia uero Q. Hortensi filia, cum ordo matronarum graui tributo a triumuiris esset oneratus nec quisquam uirorum patrocinium eis accommodare auderet, causam feminarum apud triumuiros et constanter et feliciter egit: repraesentata enim patris facundia impetrauit ut maior pars imperatae pecuniae his remitteretur. reuixit tum muliebri stirpe Q. Hortensius uerbisque filiae aspirauit, cuius si uirilix sexus posteri uim sequi uoluissent, Hortensianae eloquentiae tanta hereditas una feminae actione abscissa non esset.”*

“C. Afrania, la mujer del senador Licinio Bucco, inclinada a instaurar pleitos, presentaba siempre demandas por sí misma ante el pretor, no porque le faltasen abogados, sino porque su falta de pudor era más fuerte que todo. Así, molestando sin interrupción con sus inusitados ladridos en el Foro a las autoridades judiciales, terminó por constituir el ejemplo más conocido de intriga femenina, hasta el punto de que a las mujeres de costumbres degradadas se le daba el apelativo de “C. Afrania”. Ella vivió hasta el segundo consulado de Gayo César y el primero de Publio Servilio (48 o 49 a. C.). En efecto, de semejante monstruo es mejor transmitir a la posteridad el recuerdo del momento de su muerte que el de su nacimiento.

Habiéndose impuesto por los triunviros un duro impuesto a las matronas y no osando ninguno de los hombres defenderlas, Hortensia, hija de Quinto Hortensio, discutió con firmeza y éxito la causa ante los triunviros; reproduciendo, en efecto, la elocuencia de su padre, obtuvo que les fuese eliminada a las mujeres la mayor parte del impuesto. Quinto Hortensio parece revivir en su hija e inspirarle sus palabras. Si sus descendientes masculinos hubieran querido imitar su eficacia, la gran herencia de la elocuencia de Hortensio no habría terminado en un único discurso de una mujer.”

(V. Max., 8.3.2-3)

Hala, bi emakumeei buruz hitz egiterakoan erabilitako tonu arras ezberdinean oinarrituta, nik esango nuke Valerio Maximok kritikatzeko duena ez dela emakumeek politikan parte hartzea, ezta are publikoki parte hartzea ere, orduan biak kritikatuko baitzuten. Valerio Maximorenentzako benetan *puđicitia* eta ohituren kontra doana Afraniak egiten duena da, hots, nahiz eta bere interesak defendatzeko beste modu batzuk izan eta bere sendiko gizonak hirian bertan egon publikoki hitz egiten jarraitzea. Aldiz, Hortensiarena beharrak bultzatuta eginiko ekintza gisa ikusten du, puntuala eta zirkunstantziak baimendua, eta beraz ez du kritikatzeko, kontrakoa, haren ausardia eta talentua goraiatzeko dituen.

Beraz, Valerio Maximoren hitz hauei erreparatuta, nik esango nuke erromatar gizarteak ez zela eliteko emakumeei politikatik at mantentzea eskatzen, kontrakoa, haien parte hartze politikoa behar-beharrezkoa zen oro har familiako eta bereziki semeen etorkizuna ziurtatzeko, eta derrigorrezkoa bilakatzen zen gizonak kanpo zeudenean (erromatarrena gizarte militarra izanik nahiko sarri gertatuko zena). Hala, gizarte erromatarrek kritikatu zuena ez zen emakumeen parte hartze politikoa, baizik eta parte hartze hori begien bistan egitea, ohiko moduak errespetatu gabe eta gizonen esparruak inbadituz.

## 5-ONDORIOAK

Hortaz, badirudi, Hortensiak esandakoaren arabera, emakume erromatarrek bazutela politikan parte hartzeko ohiko modu arrunt bat; eta hau hala izanik, matronen errealitatea ez zela horren mugatzailea onartuta, ez dago jada kontraesanik haien bertute eta betebeharren artean, posible izango baitzen emakume haientzako interes propioak, zein beren seme eta familienak defendatzea eta hala ere haien errespetagarritasuna mantentzea, beti ere portaera kode bati jarraitzen bazioten. Kontraesan bakarra beraz iraganeko benetako emakumeen eta gure haiei buruz daukagun irudiaren artean dago.

Ulergarria da bestalde halako kontraesanak sortzea iragana ikertzean, izan ere, gu geu gizarte patriarkal baten bizi gara, eta honek, emakumeen mendekotasun egoeraz haratago, gizarte osoa (hizkuntza, historia, politika, etab.) maskulinoan kodifikatuta dagoela esan nahi du. Hori dela eta, oso zaila suertatzen zaigu gizarteak berezko gisa aurkezten dituen errealitateak ez direla halabeharrez horren berezkoak konturatzea. Horren adibide da esaterako politika eta publikotasuna banandu ezinezko binomio gisa ulertzea, baina hori gizonen politikaren ezaugarria da, emakumeek modu berean ez jarduteak ez du esan nahi politikan parte hartzerik ez zutenik; bai jarduten zuten, baina modu propio baten!

Horri dagokionez, nik uste emakumeen historian ikerketa berriak proposatzeak asko lagunduko ligukeela hain zuzen ere berezkozat ditugun topiko horiek baztertzen, eta hala, agian, iraganari begiratzeko modua aldatuz etorkizuna hobetzen lagunduko digun emakumeon identitate propio bat eraiki ahal izango dugu.

## 6-ERANSKINAK

### 6.1-ITURRIAK

#### 6.1.1-Literarioak

APIANO, *BC*, 4.5.32-33

KINTILIANO, *Inst.*, 1.1.6

SUETONIO, *Tib.*, 50

VALERIO MAXIMO, 4.4 eta 8.3.2-3

#### 6.1.2-Epigrafikoak

*CIL VI*, 1527: *Laudatio Turiae*

#### 6.1.3-Numismatikoak

*RIC 270 (C)*; Cohen; *BMC 164*

*RIC 309 (C)*; Cohen; *BMC 232*

### 6.2-BIBLIOGRAFIA

BAUMAN, R.A., 1992, *Women and politics in ancient Rome*, London: Routledge.

BENGOECHEA JOVE, M.C., 1998, “La historia de la mujer y la historia del género en la Roma Antigua. Historiografía actual”, *Espacio, Tiempo y Forma*, Serie II, Historia Antigua, t. 11, 241-259.

CANTARELLA, E., 1996, *La calamidad ambigua: condición e imagen de la mujer en la antigüedad griega y romana*, Madrid: Ediciones Clásicas.

—, 1997, *Pasado próximo: mujeres romanas de Tácita a Sulpicia*, Madrid: Cátedra.

CASAMAYOR MANCISIDOR, S., 2015, “*Casta, Pia, Lanifica, Domiseda*: Modelo ideal de Feminidad en la Roma Tardorrepública (ss. II-I a.C.)”, *Ab Initio*, 11, 3-23.

CENTLIVRES CHALET, C.E., 2013, *Like man, like woman: Roman women, gender qualities and conjugal relationships at the turn of the first century*, Oxford: Peter Lang.



CID LÓPEZ, R., 1998, “Livia *versus* diva Augusta. La mujer del príncipe y el culto imperial”, *Arys*, 1, 139-155.2

—, 2014, “Imágenes del poder femenino en la Roma antigua. Entre Livia y Agripina”, *Asparkia*, 25, 179-201.

CORTÉS TOVAR, R., 2004, “Espacios de poder de las mujeres en Roma”, Nieto Ibáñez, J.M. (coord.), *Estudios sobre la mujer en la cultura griega y latina-ean*, León: Universidad de León, Secretariado de Publicaciones, 193-215.

GAMBOA URIBARREN, B., 2008, “Mujer y sucesión hereditaria en Roma”, Astola Madariaga, J. (ed.), *Mujeres y derecho, pasado y presente: I Congreso multidisciplinar de Centro-Sección de Bizkaia de la Facultad de derecho-ean*, Bilbao: Universidad del País Vasco, 25-53.

GARCÍA VIVAS, G.A., 2013, *Octavia contra Cleopatra. El papel de la mujer en la propaganda política del Triunvirato (44-30 a.C.)*, Madrid: Liceus.

HÖBENREICH, E., 2005, “Andróginas y monstruos. Mujeres que hablan en la antigua Roma”, *Veleia*, 22, 173-182.

KINDER, H., HILGEMANN, W., 2006, *Atlas histórico mundial*, Madrid: Akal.

LEFKOWITZ, M.R., FANT, M.B., 1992, *Women's life in Greece & Rome: a source book in translation*, Baltimore: Johns Hopkins University Press.

LIBRÁN MORENO, M., 2007, “Pudicitia y Fides como tópicos amorosos en la poesía latina”, *Emerita: Revista de Lingüística y Filología Clásica*, LXXV, 1, 3-18.

LÓPEZ LÓPEZ, A., 1992, “Hortensia, primera oradora romana”, *Florentia iliberritana: Revista de estudios de antigüedad clásica*, 3, 317-332.

MACLACHLAN, B., 2013, *Women in Ancient Rome: a sourcebook*, London: Bloomsbury.

MORADIELLOS, E., 2008, *El oficio de historiador*, Madrid: Siglo XXI de España.

POMEROY, S.B., 1999, *Diosas, ramerías, esposas y esclavas: mujeres en la Antigüedad clásica*, Madrid: Akal.

ROSA CUBO, C., 2004, “*Matrona aut docta puella: ¿Dos universos irreconciliables?*”, Nieto Ibáñez, J.M. (coord.), *Estudios sobre la mujer en la cultura griega y latina-ean*, León: Universidad de León, Secretariado de Publicaciones, 267-281.